

Udal talde politikoaren iritzia



KONPROMISOA: GETXO, KOHESIONATUA ETA SOZIALKI ANITZA

Duela ia lau urte, Eusko Alderdi Jeltzaleko kideok, Getxon ere, gizarte aurreratuaren konpromisoa adierazi genuen, balioak (besteak beste errespetua, bizikidetzaren berdintasuna eta aniztasuna) erdigunean jartzen dituen gizarte nahi dugulako. Hori dela eta, kohesionatua dagoen Getxo udalerrira genuen hizpide, alderdi guztietan abangoardiako gizarte-arreta duena, pertsonak oinarritzko ardatz gisa dituen eta inor atzean uzten ez duena.

Sozialki anitza den Getxo, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko apustu argia eta sendoa egiten duena, bizikidetzari eta kulturartekotasunari lotutako esparruetan sakontzen duena, eta belaunaldiartekotasunari dagokionez estrategia serio eta sendoa daukana, eta helduaroari nahiz zahartzeari aktiboari garrantzia ematen diena; hori guztia, gazteekin eta haurrekin konpromiso argia nabarmentzen ditugun aldi berean.

EAJ-PNVren lan-eremutik abiatuta, getxoztarrei plantetatutako proposamenetan honako hauek azpimarratu ditugu: kulturaren eta kirolaren alorretan nabarmenak diren ekimenak, progra-



mazioak eta jarduerak, zeinak Getxoko ume eta nerabe edo gazteei zuzenduta baitaude. Entsegu-gelak, liburutegien programazioak, ikastaroak eta udalekuak Getxo Kirolak... eskaintza etengabea da, eta geroz eta sendoagoa.

Erakundearen arteko lankidetzaren eta gizarte-eremuko eragile eta erakundeekin elkarlanean aritzea, zorte txarra izan duten eta gehien pairatu duten pertsonekin programa eta proiektu ugari gauzatzeko aldera. Horren harira, gogoan

izan behar dugu osasun-pandemiak jotako bi urte gogor izan ditugula, eta Getxoko familiek ere horren eragin sozialak nahiz ekonomikoak jasan behar izan dituztela.

Aipatzekoak dira erakundearen arteko lana eta konpromisoa, bai eta proiektu estrategikoan erakundeekin lankidetzaren aritzea ere. Hala, nabarmentzen da EAJ-PNV alderdiak Romoko belaunaldi arteko zentroarekin erakutsitako konpromisoa. Izan ere, adinekoen eta gazteen bizikidetzaren abangoardiako erreferentzia izango da, zeinak honako hauek hartuko baititu barne: batetik, punta-puntako egoitza eta gazteen zuzkidura-bizitokiak; bestetik, elkarrekin bizitzeko eta partekatze modu berriak eskainiko dituzten espazio komunak.

Helduaroak dakarren garai berriari dagokionez, Getxo eredu da jada zahartzeari aktiboko proiektu eta programetan, gure udalerrian adineko emakume eta gizonentzat zeharka egiten diren ekimenak eta Getxo Lagunkoia direla eta. Konpromiso horiek betetzen ditugu, Getxo bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko toki izatea nahi dugulako.



GAUZAK BESTE MODU BATEAN EGIN DAITEZKE

HAY OTRA FORMA DE HACER LAS COSAS

Escuchando a los vecinos y comercios afectados.

Ofreciendo información constante y detallada sobre las obras.

Planificando una ejecución por tramos para ocasionar menores molestias.

Aplicando exenciones fiscales para los comercios de la zona.

Solucionando, no sumando problemas que no existían al eliminar 200 plazas de aparcamiento.

Cumpliendo los plazos.

Areetako obrak aurrera doaz, gehienek horien aurkako iritzia adierazi izan arren, 150 aparkaleku-plaza kenduko baitira. EAJren arduragabekeriaren ondorioz, Kale Nagusiak ginkana dirudi, alde batera utzita obrek arrakasta izan dezaten bete beharreko nahitazko alderdiak. Entzungor egin diote ukitutako saltokiek eta herritarrek adierazitako iritzari. Horrez gain, plangintza-faltaren

ondorioz, ez diete obraren aurrerapenaren berri ematen, eta ez dute ezta baloratu ere egin eragindako eragozpenengatik zerga-salbuespenen bat eskaintzeko aukera. Azkenik, garrantzitsua da emaitza konpontzea eta arazorik ez sortzea. Kasu honetan, aipatutako 150 aparkaleku-plazak kenduko dira, gaur egun aparkaleku-falta Getxoko kezkarik handienetakoa bat bada ere. #esnatoGetxo



2023KO AURREKONTUAK: GETXOZTARRON BEHARREI ERANTZUTEKO APUSTURIK EZ

Abenduaren 23an 2023ko aurrekontuak bozkatzeko ez-ohiko udalbatza egongo da. Udal Gobernuaren proposamenek aurreko urteetako bidetik jarraitzen dute eta ez diete gaur egungo errealitatean getxoztarrok ditugun beharrei erantzuten.

Hasteko, ez dago energia berriztagarrien aldeko konpromisorik, Eusko Jaurlaritzak bide horretatik abiatzeko erraztasunak jarri dituen arren. Halaber, herri eragileen aldeko apusturik ere ez da egiten, hauen lana oinarritzkoa den arren. Azken urtean inflazioa nabarmen igo da, baina aurrekontuetan ez dira diru laguntzak inflazioaren eraginera egokitu; beraz, eragileak larriago ibiliko dira euren lana egin ahal izateko.

Etxebizitza planei dagokienez, aurten ere Udal Gobernuak ez du politika

eraginkorrik aurkeztu. Are gehiago, HAPOK arazoa areagotuko duelakoan gaude. Etxebizitza arloak egiten duen gauza bakarra da emantzipazio diru laguntzak eman, nahikoak ez direnak, eta berandu eta oztopo gehiegirekin etortzen direnak. Ez dago benetan etxebizitza arazoari irtenbidea bilatzeko inolako apusturik.

Horretaz gain, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi honako puntu hauek: herriko ondarearen galera, ingurugiroaren aldeko apusturik eza, herri busik ez jartzea eta Berdintasun saila berritzeko interesik eza, besteak beste.

Hori dela eta, EH Bildutik puntu hauek lantzeko proposamenak egin ditugu Osoko Zuzenketa eta zuzenketa partzialen bidez. Herriari begirako proposamenak ehuntzen jarraituko dugu!



GETXO, HARRERA EMATEKO HIRI ERREFERENTEA

Abenduaren 18an, Migratzaileen Nazioarteko Eguna izango da, eta migratzaileak gure biztanleriaren % 11 dira. Aipatzekoa da ere Getxoko pertsona askok migratu behar izaten dutela, lan-arrazoia edo arazo pertsonalak direla bide. Hori dela eta, PSE-EE alderdiko kideok egun hau aldarrikatu nahi dugu, migrazioei lotutako gorroto-diskurtsoak amaitu behar direlako. Kultura-aniztasuna nabarmendu behar dugu, gizarte inklusiboagoa eta anitzagoa sortzeko aukera handia den aldetik; hala, aipatutako prozesua eraikitzeke lehengo fasea da harrera. Eta Getxo, bereziki harrera emateari dagokio-



nez, hiri erreferentea da Euskadin, Migrazioen Harrerarako eta Arreta Emateko Bulegoari esker, zeina Alderdi Sozialistak sustatu baitzuen Gizarte Kohesioko Arloaren kudeaketaren bidez.



2023. URTEKO AURREKONTUAK: BETIKO MODUAN

Elkarrekin taldeko kideok 33 zuzenketa aurkeztu ditugu 2023ko udal-aurrekontuei dagokienez, proposamen kontinuitate, aldebakarrekota eta benetako aniztasunarekin gabekoa dela baiteritzogu, hauteskunde-kampainan arreta jartzen duena. Gure zuzenketek, zeinak ia 3 milioi eurokoak baitira, aurrekontu horiek berriro enfokatzeko dute helburu, eskubideak handitzen eta berdint-

tasuna sustatzen duten neurriak erdigunean egon daitezkeen, zerbitzu publikoak sendotu daitezkeen, arazoizko etxebizitza izateko eskubidea bermatu dadin, familiak zaindu daitezkeen eta hiri-birsorkuntza berdea sustatu dadin, justua eta mugikortasun jasangarrikoa; hori guztia, neurrigabeko urbanizazioa mugatuz eta natura-ingurunea babestuz. elkarrekinpodemos@getxo.eus